



ARG.: ESA/J. HUART

## Vega suziri berriaren estreinako hegaldia

### ESA agentziak satellite batzuk jarri ditu orbitan Vega suziri berriaren bitartez


Vega suziriak lehen hegaldia egin zuen otsailaren 13an, ESA agentziak Kouroun (Guyana Frantsesa) duen jaurtitze-pistatik abiatuta. Gaur egun, agentziak dituen hiru suzirietatik txikiena da Vega, eta ikerketarako satelliteak orbitan jartzeko diseinatu dute. Italiako Espazio Agentziak eman zituen Vega sortzeko lehen urratsak. Izena akronimo bat da, hitz hauetatik sortua: *Vettore Europeo di Generazione Avanzata* (Belaunaldi Aurreratuko Garraio Suziri Europarra), eta Vega izarraren izena gogorarazten du. Lehen hegaldian, bederatzi satellite jarri zituen orbitan, eta adituek espero dute, alderdi horretatik, suziri berezi honen ibilbidea oparoa izatea.

Berezia da, suziri hau iritsiko delako besteak iristen ez diren orbitetara. Izan ere, Vegak ahalmena du satelliteak poloen gaineko orbitetara eta orbita baxuetara eramateko —2.000 kilometrotik beherakoetara—. Orbita horiek ikerketarako interesgarriak dira, batez ere, Lurra bera espaziotik aztertzeko; baina ez dira

baliagarriak satellite komertzial gehienetarako. Horregatik, Vega suziria ez dute erabiliko, adibidez, telekomunikazioko satelliteak espazioratzeko (satelliteen esparruko jarduera errentagarrienerako, alegia).

Suziria 30 metro luze eta 3 metro zabal da, eta lau fase ditu. Lehen hirurek erregai solidoa erabiltzen dute, eta, haiek askatu ondoren, suziriaren “burua” erregai likidoz baliatzen da, orbitan modu zehatz batean sartzeko.

Lehen hegaldian eraman zituen bederatzi satelliteetako nagusia LARES satelitea da, Italiako Espazio Agentziak grabitatearen efektua eta erlatibitate aztertzeko egin duen satellite bat. Horrez gainera, Lurra behatzeko, ALMASat-1 satelitea eta zazpi satellite kubiko txiki —CubeSat— jarri zituen orbitan. Hegaldi arrakastatsua izan da, eta ESAkoek iragarri dute beste bost misio egingo dituela Vegak 2016. urtea baino lehen. ●



PW-Sat satelite txiki kubikoa. Vega suziriaren lehen hegaldian orbitan jarriko dituen zazpi CubeSat-etako bat. Varsoviako Teknologia Unibertsitatean garatu dute. ARG.: ESA/A. REYES.